

"BESTE HITZAK-OTHER WORDS" PROGRAMAREN ZIRRIBORROA EUROPAKO LITERATURA TXIKI ETA GUTXITUEN ZIRKUITUA

SARRERA

Europaren ezaugarri nagusienetako bat, dudarik gabe, bere aniztasun kultural eta linguistikoa da. Egun, europarrentzat aniztasun hau, gero eta gehiago, ondare aberasgarria da eta hala islatzen dute erakunde eta administrazio ezberdinek azkeneko hamarkadetan bultzatu dituzten neurri eta politikek. Hauen azkeneko helburua europarrek bere nortasuna osatzea dela esan genezake, Europako hiritar, herrialde, hizkuntza, tradizio eta hartu-eman guztiak kontutan hartzen badira eraiki baitaiteke bakarrik europar proiektua berdintasunaren eta askatasunaren oinarrietan.

Aldarrikatu beharreko errealitate kultural horretan hizkuntza gutxituek eta hizkuntza txikiek garrantzi berezia dute. Asko dira Europaren historia luze eta konplexuan ezkutuan, itzalean edota ukatuta izan direnak, baina asko dira ere bere hitzunei esker gaur arte iristeko gai izan direnak. Europaren hizkuntza aniztasuna hitzun ugari edo babes legal osoa duten hizkuntzez haraindi doa: hizkuntza txikiek eta gutxituek gogorarazten digute, beste ezerk baino hobeto agian, Europaren konplexutasun aberasgarria eta arlo gutxi daude europar proiektua gidatu behar duten baloreak indarrean ikusteko egokiagoak.

Gaur aurkezten dugun Programa hau balore horietan eta aldarrikapen eta abentura kultural zabal horretan errotzen da. Horiek dira agerian jarri nahi ditugun "Beste hitzak", Europako hizkuntza txiki eta gutxituen literatura ezberdinak kontaktuan jarriz, literatur sorkuntza sustatuz eta lurralde ezberdinetako esperientziak partekatuz.

Baina ez dira hizkuntza hauetan idatzi eta esandakoak bistaratu nahi ditugun hitz bakarrak. "Beste hitzak" izenburuarekin Programaren filosofia ere jaso nahi dugu, bere ikuspegi eta edukietan islatu dena. Ikuspegi dominanteen azpian dagoena azalera ekarri nahi da, ezkutua, gutxietsia edota estalita dagoena agerrarazi, berreskuratu eta balioan jarri. Horrela bakarrik lortu baitaiteke sakoneko aniztasun bizia.

"Beste" horiek kulturalak, sozialak, geografikoak, artistikoak, generokoak, etab., dira. Xedea da ahotsa ematea "beste" horiei, literatur sorkuntzaren bidez.

Baina "Beste hitzak" izenburuak sorkuntzaren lengoaiari egiten dio erreferentzia ere. Formula berriak, orijinaltasuna, esperimentazioa eta ausardia sustatu nahi dituen Programa da hau; literaturaren aukera zabalak hausnarketa. Beste hitzak, besteen hitzak, hitz berriak eta hitz berritzaileak jarri nahi ditugu biran Europako literatur gutxitu eta txikien sorkuntza zirkuitu honetan.

DEFINIZIOA

Programaren muina hau da: hizkuntza gutxitu edo txikietan idazten duten idazleentzat **sorkuntza-egonaldien europar zirkuitu bat osatzea**, hizkuntza hauen lurraldetako bazkideen sare baten bitartez.

Aipatu sarean, Donostia Kulturaz gain, beste lurraldetako (aurrerantzean, lurralde parte-hartzaileak) lau erakundek (aurrerantzean, bazkide parte-hartzaileak) parte hartuko dute; ondokoak: Youth Forum Na Mladi (Mazedonia), X-Op-Exchange of Art Operators and Producers (Eslovenia), Foras Na Gailge (Irlanda) eta Leeuwarden (Frisia)

Donostia Kulturak lidergoa hartuko du Programa diseinatu, garatu, planifikatu eta kudeatzeko, beste bazkide parte-hartzaile guztiekin batera.

Testuinguru horretan, Programak hizkuntza txiki eta gutxituetako literaturaren inguruko eragileak harremanean eta lankidetzan jarriko ditu.

HELBURUAK

Helburu orokorrak

- Hizkuntza txiki eta gutxituetako literaturentzat nazioarteko zabalpen aukerak eskaintzea.
- Europako hizkuntza txiki eta gutxituetan fokua ipiniz eta itzulpengintzaren paperari garrantzia emanez, hizkuntza aniztasuna balioan jartzea.
- Bertan parte hartzen duten aktoreen (idazle, itzultzaile, antolatzaile...) egitekoa balioan jarri eta literatur sorkuntza prozesuak ikusaraztea.

Helburu espezifikoak

1. Agerian ez dauden gaiak, ikuspegiak eta gizarte sektoreak ikusaraztea.
2. Hizkuntza txiki eta gutxituetako literaturaren inguruko eragileen elkarlana gauzatzea.
3. Publiko berriak (bereziki gazteak) erakartzea.

PROGRAMAREN ARDATZAK

Lau dira Programaren ardatzak: egonaldiak, literatur sorkuntza proiektuak, itzulpenak eta testuen argitalpen digitala webgunean.

1. Egonaldiak

Egonaldiak dira Programaren bihotza. Egonaldietan mamituta, literatur sorkuntza esperientzia zabalagoa bilakatzen da, aukera ezberdin interesgarrietara irekiz:

lurraldearen ezagutza, beste artistekin elkarlan posibleak, sorkuntza prozesua bistaraziz publiko berriengana iristeko aukera, etab.

- **8 asteko literatur sorkuntzarako egonaldiak** bultzatuko dira Programan. Egonaldi hauetako bakoitzean, lurralde parte-hartzaile bateko idazle batek beste lurralde parte hartzaile batean igaroko du denbora hau.
- Bazkide parte-hartzaile bakoitzak **2 idazle bidali eta 2 idazle jasoko lituzke** urtero. Bazkide parte-hartzaile hauetako bakoitza arduratuko da bere lurraldetik beste batera doazen idazleentzat **deialdi publikoa egin eta hautaketa bideratzeaz**. Bestalde, bazkide parte-hartzaile bakoitzak jasoko dituen idazleentzat literatur sorkuntzarako **baldintza egokiak biltzen dituzten egoitzak** eskaini beharko ditu.
- Idazleen egonaldiak garatzen diren lurraldeko komunitateekin harreman dinamikoan garatzea litzateke asmoa; alde batetik sorkuntza prozesua era publikoan aurrera eramateko eta, bestetik, egonaldiaren esperientziak sorkuntza prozesuan isla dadin.

Horretarako idazle bakoitzak **2 jarduera osagarri garatuko ditu egonaldian zehar** eta lurralde horretako bazkidearen ardura izango da jarduera horiek antolatzea, bere tokiko sareko eragile eta bitartekoen laguntzaz. Honakoak izango lirateke jarduerak, aukeran:

- Publiko zabalarentzat hitzaldi edo tailerrak
 - Haur eta gazteen artean irakurketa edota idazkera sustatzeko jarduerak
 - Lurralde horretako komunitateko artista batekin elkarlana, diziplinak uztartuz
- Egonaldiaren izaera dinamikoaren erakusle eta sorkuntza prozesua ikusaraztearen helburuari erantzunez, idazleak bermatuko du egonaldiaren kontakizuna Programaren webgunean argitaratzea. Horretarako, multimedia blogek ematen dituzten formatu ezberdinekin jokatu ahal izango luke: testuak, irudiak, bideok eta audioa. Beste atal bat izango du: "Beste hitzak" Programaren webgunean idazleak blog edo bideoblog batean jasoko du bere sorkuntza Programaren martxa eta egonaldiaren egunerokoa.
 - Bazkide parte-hartzaile bakoitzak, dituen egoitza aukera ezberdinak kontutan hartuta eta Programa-proposamenak ezagutu ostean, edukiak eta egoitzak ahalik eta egokien uztartzeko irizpidea jarraituko du.
 - Egonaldiak bukatu ostean, idazleek bazkide bidaltzaileek (hau da, egonaldia beste lurralde batean egitera idazlea bidali duen lurraldeko bazkideek) beren lurraldean antolatutako hitzaldietan parte hartuko dute, beren esperientzia

partekatuz, bai eta hizkuntza txiki eta gutxituen literaturak sustatzeko jardute onak ere.

2. Literatur sorkuntzako proiektuak

Egonaldietan zehar, idazleek Programaren ezaugarri eta baldintzen arabera literatur lanak garatuko dituzte. Hizkuntza txiki edo gutxituetan, gai, sektore edo errealitate ezkutuen inguruko lanak garatuko dituzte lurralde hartzailetako komunitateekin harremanean eta sorkuntza prozesuari ikusgarritasuna emanaz.

Lan horren azken emaitza, aurreko 1. puntuan zehazturiko egonaldiaren on-line kontakizunaz eta jarduera paraleloez gain, **literatur testu** bat izango da.

Proiektu eta idazleen hautaketa bazkide bidaltzailearen eta bazkide hartzailearen artean gauzatuko da, urtero, ondoko prozedura jarraituz:

- o Bazkide bidaltzaileak deialdia egingo du bere lurraldean.
- o Bazkide bidaltzailearen hautaketa batzordeak jasotako proiektuak baloratu eta egonaldi plaza bakoitzerako 3 hautatuko ditu.
- o Bazkide hartzailearen hautaketa batzordeak 3 proiektu horien artean bakarra hautatuko du.

Proiektuek ondorengo ezaugarriak bete behar dituzte:

- o "Beste hitzak" Programaren filosofiarekin bat etorri ("Sarrera" atalean azaldutakoa)
- o **Edozein literatur generokoak izan daitezke** eta nahi izanez gero bestelako lengoia artistikoekin uztartuta: ilustrazioa, argazkilaritza, musika, arte ederrak, ikus-entzunezko sorkuntza, etab.
- o Ondorengoak izango dira hautaketa irizpideak:
 - Proiektuaren kalitatea eta orijinaltasuna
 - Jarduera osagarrien planteamendua
 - Proiektuak egonaldiaren lurraldeko errealitatearekin izan dezakeen lotura
 - Webgunean egonaldiaren esperientzia eta sorkuntza prozesua jasotzeko planteamendua
 - Idazlearen aurreko ibilbidea
 - Aurrekoez gain, emakume eta gizonezkoen arteko oreka kontutan hartuko da eta idazle gazteei arreta berezia emango zaie.

Artista gonbidatuak: Programa parte-hartzaile ez diren lurraldetako idazle gonbidatuak hartzeko diseinatua izan da: esaterako, Okzitania (egonaldia 2016an),

Malta (egonaldia 2017an) eta Gales (egonaldia 2018an). Ondorioz, lurraldearen ikuspegitik, Programa Europan zehar hedatuko da, bere eragina beste herrialdetan zehar barreiatuz.

Webguneari esker, emaitzak bazkide parte-hartzaileen eragin-eremuetatik haraindi zabalduko dira, publiko berriak lortuz eta sortze prozesuaren ikusgarritasuna tokiko komunitatetatik atereaz. Orain arte Donostia Kulturak kontaktatu dituen erakundeak eta beren babesa ikusita, sarea azkar haziko dela pentsa dezakegu; horrek Programa bideragarria egin eta bere eragin handia bermatuko du Europa osoan.

3. Itzulpenak

"Beste hitzak-Other words" Programaren helburu nagusietako bat hizkuntza gutxitu edo txikien literaturak eta idazleak elkarren artean ezagutzera ematea da; itzulpena ezinbestekoa da horretarako. Umberto Eco "Europako berezko hizkuntza itzulpena da" dioenean bestelako ideia sakonago bat azalera du: eleaniztasuna Europako nortasunaren sustraietako bat dela. Europa komunitate linguistiko konplexu bat bezala uler liteke eta itzulpenak aberastasun hori galdu gabe "beste hitzak" eta "besteen hitzak" geureak egiteko aukera eta geure hitzak besteenak bihurtzekoa.

- Idazleek beren egonaldietan idazten dituzten testuak "Beste hitzak-Other Words" Programan parte hartzen duten bazkideen hizkuntzetara itzuliko dira, eta baita ingelesera ere. Itzulpen guztiak Programaren webgunean argitaratuko dira.
- Bazkide bakoitza arduratuko da beste bazkideen hizkuntzetan sortutako testuak bere hizkuntzara itzuliak izan daitezen beharrezko baliabideak jartzeaz. Aukera dagoen kasuetan hizkuntza txiki edo gutxitu batetik bestera zuzenean itzuliko da; bestela, ingelesera itzultakotik norberarenera pausoa eman beharko da.

4. Testuen argitalpen digitala webgunean. Hedapen estrategia

ESTRATEGIA DIGITALA

Hizkuntza txiki eta gutxituetan idatziriko literatur lanak bitarteko digitalen bidez argitaratu beharko lirakeela uste dugu, publiko gazteak erakartzeko.

"Beste Hitzak-Other Words" Programaren baitan, berari loturiko eduki guztiak webgunean argitaratuko dira, ondokoak aplikatuz:

- Webguneak Programari loturiko **eduki** guztiak eskainiko ditu.
 - Lehiaketei eta hautaketa prozesuei buruzko informazioa.

- **Informazio orokorra:** Informazio-orriak, bazkide parte-hartzaileen, lurraldeen, hizkuntzen eta idazleen inguruko informazio guztiarekin.
- Idazleek **sortze prozesuari buruzko egunkari bat** idatziko dute, gustuko duten multimedia erreminta erabiliz.
- Webguneak **jarduera osagarrien** inguruko informazioa eskainiko du ere. Hezkuntza-edukiari, material esperimentalari eta publiko hartzaileari dagokionean, webgunearen atal bat gordeko da hurrekin eta beste artista batzuekin gauzaturiko jarduerentzat.
- Sortze prozesuaren emaitzak eta **idazleek idatzi dituzten testuak** ahal bezain pronto argitaratuko dira.
- Honako hauek dira webgunearen ezaugarri **nagusiak**:
 - Informazio orokorra eta idatzitako literatur testuak bazkide parte-hartzailetako hizkuntzetara itzuliko dira, bai eta ingelesera ere.
 - Literatur sorkuntzak formatu digitalean argitaratuko dira, eskubide guztiak gordeta, irakurle guztien esku egon daitezten.
 - Webgunea gizarte-saretara konektatuta egongo da, hizkuntza txiki eta gutxituen on-line ikusgarritasuna areagotzeko eta edukia eskuragarriago egon dadin Interneten. Zehazki, ekimenaren izena eramango duten profilak sortuko dira Twitter eta Facebooken, bai eta literaturari loturiko gizarte-sare guztietan.
 - Webguneak **harpidetza-zerbitzu** bat eskainiko du. Horri esker, eduki interaktiboa eta idazleen lana eskuragarri egongo da, jarraitzaileen komunitatea sustatzeko xedearekin.

Publikoari eskainitako atalaz gain, webguneak sarbide berezia izango du parte-hartzaileentzat, elkarren arteko hartu-emanak errazteko. **Kudeaketa-softwarea ingelesez egongo da;** halere, **erabiltzailearen gidaliburua** hizkuntza guztietara itzuliko da.

KOMUNIKAZIO JARDUERAK

Estrategia digitalaz gain, Programaren amaieran antologia bat argitaratuko da, egonaldietan parte hartu duten idazle guztien literatur testuak bilduz.

Halaber, komunikazio-estrategiek hartzaile-talde oso ezberdinak izango dituzte:

- ohiko irakurleak hizkuntza txiki eta gutxituetan.
- hizkuntza txiki eta gutxituak eta lurralde eleanitzetako literatura sustatzen dituzten erakunde akademikoak eta elkarteak.
- irakurle berriak. Irakurle berriak lortzeko, erreminta berritzaileak erabiliko dira.

PROGRAMAREN GUTXI GORABEHERAKO EGUTEGIA

Orientazio gisa, eta izaera loteslerik gabe, esan Programa ondoko egutegiari jarraiki gauzatuko dela gutxi gorabehera:

2015

Egituraren Prestaketa eta Webgunearen Atontzea

2016

Deialdia, Hautaketa, Egonaldia (Sorkuntza+Jarduerak), Argitalpena

2017

Deialdia, Hautaketa, Egonaldia (Sorkuntza+Jarduerak), Argitalpena

2018

Deialdia, Hautaketa, Egonaldia (Sorkuntza+Jarduerak), Argitalpena

2019

Argitalpena, etorkizunean elkarrekin lan egiteko sare bat sortzea, antologia eta azken ebaluazioa

